

Zinegoak gaylesbotrans jaialdiaren XII. edizioa hastera doa

Gaur goizean egin da Bilboko gaylesbotrans nazioarteko zinema eta arte eszenikoen jaialdiaren hamabigarren edizioaren aurkezpena

Zinegoak 2015-eko berrikuntza guztiak aurkeztu dira Fernando Díez Ohorezko Sari Bereziaren irabazlearen presentzia izan duen prentsaurrekoan. Urtarrilaren 26an Arriaga Antzerkian lehenengo aldiz debalde izango den hasiera ekitaldiarekin hasiko da jaialdia, Maitena Salinas-ek aurkeztuta eta Fabian Toméren dantza ikuskizuna izango duena.

Hainbat berrikuntza ditu jaialdiaren XII. edizioak. Euskararen presentzia handitzen da, izan ere, lehenengo aldiz, hizkuntza honetara azp titulaturako hiru ziklo izango dira ikusgai, euskararen alde jaialdiak egiten duen apustua azpimarratzen duena.

Azaldu dutenaren arabera, Miguel Albaladejo izango da aurtengo ohorezko saria jasoko duena. Beste hainbat sariz gain, Goya sarietarako lortu zuen lehenengo nominazioa ekarri zion “La primera noche de mi vida” (1998), Elvira Lindorekin batera idatzitako film luzearekin hasi zen ibilbide luzearen ostean ematen zaio saria zuzendari alikantarrari. “Cachorro” (2004) Albaladejoren gay tematikako film luzerik ezagunenak sexu eszena nahiko esplizituak dituen hartzaren armairutik (edo kobazulotik) irteera suposatzen du, hartza mamifero homosexualtzat hartuta.

Aurtengo edizioak, gainera, Zinegoak Sari Berezia banatuko du, BitArt New Mediaren gerente den Fernando Díez bilboko produktoreak jasoko duena. Aurten estreinatuko diren hiru LGBT filmetan parte hartu du: “A escondidas”, Mikel Rueda-rena, “Los tontos y los estúpidos”, Roberto Castón-ena eta “Vestido de Novia”, Marilyn Solaya-rena. Urte bakarrean LGBT gaia tratatzen duten hiru film estreinatzen dituen lehen produktore europarra da Fernando Díez. Otsailaren 1ean BBK Aretoan jasoko du saria, jaialdiaren itxiera galan, bertan “Vestido de Novia” filmaren nazioarteko premierea ere egingo da.

Off Zinegoak programak ere berrikuntzak dakartza, izan ere, hiru film luze izango ditu lehen aldiz. Horretaz gain, bere hiletaren 40. urteurrena dela eta Pasoliniri eskainitako ziklo berezia eskainiko da.

Berdinu, lesbiana, gay, transexual eta bisexualei Arreta Zerbitzua, babesle ofiziala da aurtun, haurtzaroa eta nerabezaroa lantzen duten obrak sustatuko dituzte.